

17 galdera bat-bateko, orrialdeaz bestaldeko kontaktuari



Imanol Manterola °

Oinarritzko galdetegia, orrialdeaz bestaldeko kontaktuari:

1. Kirol-portua eraiki da. Kirol gehiago egiten al dute herritarrek orain? Geroztik jendea zoriontsuagoa al da?
2. Aparkaleku handia behar zen. Non kokatu beharko litzateke? Autopista azpian? Hondartzatik gertu? Bietan hobe?
3. Posible al da planeamendurik egitea, baldintzazaila nagusia autoak izan gabe?
4. Auzo berria diseinatzerakoan kontuan izan al da Orioren irudirik ezagunena izango dela? Jendeak Orioz duen irudia nola aldatu da auzo berria eraiki denetik?
5. Bidezkoa al da udalarenak (herriarenak, alegia) ziren lurrak pribatuen esku izatea gaur egun?
6. Zapaldu ezin den berdegunea (dunaz osatua), jabari eta erabilera publikoko ingurunetzat har al daiteke?
7. Kanpina, dentsitate txikiko eremu kontsidera al genezake?
8. Berdegunea osatzeko obra-hondakinak erabili izan badira, udalak isilik egon behar al luke?
9. Hiri-paisaia zaintzeak zurrutu al dezake etxebizitza elkarri atxikitako etxetxoak eraikitzea?
10. Etxebizitza tasatuak, babestutakoak... baina eite bereko erosleak. Zentzurik ba al du?
11. Erosleak!?!?
12. Gaurko egoeran ulergarria al da auzo berriak eraikitzea? Eta krisiaren aurretik?
13. Hiri-antolamendu berriek legea bete behar dute? Zergatik? Hori nahikoa al da?
14. Herriek nolako hazkuntza izan behar dute? Tipulen antzera? Brokolien itxurakoa? Satellite gisakoa? Koloniala? Zelulen modukoa? Hazkuntza ezinbestekoa ote?
15. Herriarentzat onuragarria izan al da egin den eraldaketa? Eta herritarrentzat?

Orioko hondartza-inguruaren hiri-antolamendu berriak hainbat eztabaida sortu ditu, berrian bertan zein bestelako plazetan. Planifikazioaren alde daudeneke, beste ezzein argudioren gainetik, dena legezkoa dela aldarrikatu dute, abots goraz. Baina hau bakarrik nahikoa ote?

Zenbait proiektuk patu hori izaten dute; halaberharrez, erakusleihu publikoaren erdian kokatzen dira, jendearen epaiaren menpe. Horixe gertatu zaio Orioko kostaldearen eraberritzeari ere, autobidearen albo batean izaki, egunero milaka lagunek jarraitu baitituzte bertako lanak. Obrek ez dute inor hotz laga.

Duela 40 urte inguru eraiki zen A-8 autobideak bitan bantu zuen Oriaren itsasadarreko azken meandroa. Goyaldean gelditu zen herrigunea; behealdean, berriz, hondartza-ingurua, dunak eta errio ertzeko urmaela. Autobidea osatzeko egindako betelanak, gainera, herritik hondartzara zihoan bide zaharra eten egin zuen. Zubiak era berean, batetik, 22 x 230 metro karratuko eremu mortua sortu zuen bere azpian; bestetik, aldiz, ortzi-muga eraldatu zuen (geroztik ezinezko da herritik, itsasoa biltzen duten labarrak ikustea; hondartzatik herriko eraikinak bistaratzea...).


Zubia eraiki zenean, haren paretik hondartza bitartean, ez zen ia eraikinik; bakarrik, palazio itxurako opor-etxe bat, San Joan ermita, eta batere planifikaziorik gabe eraikitako zenbait etxebizitza txiki hondartza aurrean —harearen joan-etorrien menpe—. Denborarekin, etxebizitza horietako asko hustu egin ziren eta zenbait, taberna edo jatetxe bihurtu. Horiek utzitako tartetan ere, hala-moduzko egiturak jaso ziren funtzio berarekin. Gerora, eraiki ziren, kanpina, futbol-zelaia eta herri-eskola.

Haize eta olatuak alde, herriak, ezin uka, bazuen hondartza-aldeko ingurunea (autopistako zubitik beherakoa) birdefinitzeko beharra. Gainera, Oriok zorte hori zuen, aukera horixe bera; gertuko kostaldeko beste herriek ez bezala.

Patchwork planifikazioa. Hala dei geniezaioke Orioko hondartzakoari, tesela desberdinak elkartuz osatu delako: kanpin bat hemen, hotel bat hor, dunatxo batzuk harantzago, kirol-portua ibai-bazterrean, etxe adosatu batzuk eta zenbait etxebizitza-eraikin, lehendik hor zen eskola errespetatu... Zatik guztiak bata bestearen ondoan kokatu eta, nola edo hala, autoak leku guztietara irits daitezten bermatu, besterik ez dela egin dirudi. Tira, eta noski, gutxieneko distantziak, eraikitako m²-ak, m³-ak, zabalera minimoak, €-ak eta gainerako parametroak koadratu.

Proiektuaren helburu nagusietako bat izan behar zukeen, nik uste, hondartza atzera ere herrira gerturatzeak, autopistako zubiak sortutako muga eraisteak. Baina, harresia handitu besterik ez da egin, uda partean egun-pasa etortzen diren kanpotarrentzako aparkalekua haren azpian kokatuz.

San Joan ermitak gaur egungo gizarte laiko honetan ere, herri-memorian garrantzi handia du (urtetan ibaia zelatatu duen talaia txoa, garai bateko herriko uraren sorburu, arrantzaleentzat herriko lehen erreferentzia...). Planifikazio berriak erabat ahaztu du leku hori, eta okerrago dena, etorkizuneko oriotarrei ezkutarazi egin die.



Egia da ahalegina egin dela duna-eremu zabal bat eraikiz, berdegune zabalak antolatuz, eraikinen altuera kontrolatuz... Baina ez da nahikoa, inondik ere. Azterketa sakonagoa behar litzateke neurtzeko, auzo berria antolatzeko, zein izan diren ildo nagusietan erabakimena izan duten eragileak.

Dena den, oroz gainetik, proiektua abiatu aurreko uneari ere begiratu eman behar genioke. Beharrezkoa al zen autopistaz bestaldeko lurak kolonizatzea? Ez ote zen zentzuzkoagoa, lehenik herritik gertuko lurak okupatzea?



'Imanol Manterola arkitekto 'lizentziatua' da.